


ZENBAKI DEZIMALDUNAK: Irakurtzea eta idaztea

Zenbaki dezimaldunak erabil ditzakegu, adibidez, objektuen prezioak adierazteko.



0,52 €



1,35 €

2,85 €



Zenbaki dezimaldunek bi zati dituzte, koma batek bereizita:

Parte osoa,
komaren
ezkerrean

Parte osoa		Parte dezimala	
H	u	h	e
	9	2	4
2	5	1	8

Parte dezimala,
komaren
eskuinean



9,24

9 unitate eta 24 ehunen edo 9 koma 24 irakurtzen da.



25,18

25 unitate eta 18 ehunen edo 25 koma 18 irakurtzen da.



1) Erreparatu adibideari, eta osatu taula:



Zenbaki dezimalduna	Parte osoa		Parte dezimala		Nola irakurtzen den
	H	U	h	e	
3,15		3	1	5	3 unitate eta 15 ehunen edo 3 koma 15
26,36					
15,09					
9,9					
45,12					
67,7					



2) Idatzi zifraz honako zenbaki dezimaldun hauek:

- ✓ Zortzi unitate eta hamaika ehunen
- ✓ Hogeita hemeretzi koma hiru
- ✓ Hirurogeita hamalau unitate eta hamabost ehunen
- ✓ Laurogeita hiru unitate eta bi hamarren
- ✓ Berrogeita hamabi koma bost
- ✓ Hirurogeita bost unitate eta hemeretzi ehunen
- ✓ Hogeita hamazortzi koma hogeita hiru



3) Zein zenbaki da?

* $7H + 3U + 5h + 6e$

* $8U + 9h + 1e$

* $4U + 6h + 9e$

* $9H + 9h$

* $2H + 1U + 3h + 5e$

* $2h + 5e$



4) Adierazi zein zenbakiri dagokion letra bakoitza hurrengo zenbaki zuzenean



A



B




C



D



E



5) Zer balio dauka 8 zifrak honako zenbaki hauetan? Erreparatu adibideari. Lotu geziekin.

2,83



8 hamarren

8,09

89,04

0,82

16,18

☐ 8 Hamarreko

☐ 8 Unitate

☐ 8 hamarren

☐ 8 ehunen

